



IRIZPEN ZK.: D16-025

ZENBAIT ETXEBIZITZETAKO UR KONTSUMOA EUSKO JAURLARITZARI LAGATZEARI BURUZ UDAL SOZIETATE PUBLIKO BATEK EGINDAKO KONTSULTA

AURREKARIAK

LEHENENGO: 2016ko apirilaren 5ean udal sozietate publiko baten kontsulta bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Goiburuan adierazitako gaiari buruzkoa zen, eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziak bidalitakoa.

BIGARREN: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea”.

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko irizpena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Udal sozietateak dio Eusko Jaurlaritzak ondokoa eskatu diola, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 64. artikulua dioena betez: *“egiaztagiriak egiteko hainbat etxebizitzatan azken bi urteetan izandako ur kontsumoarekin m³-tan”.*

Eta eskatu du argitzeko ea 3/2015 Legea aintzat hartuta, sozietateak eman egin behar dituen Eusko Jaurlaritzak eskatutako datuak.

II

Kontsultak aipatzen dituen datuak pertsona fisikoei buruzkoa direnez, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren (DBLO) menpe daude; eta, hori egitea datuak lagatzea da (udal sozietate batek Eusko Jaurlaritzari zenbait datu laga behar dizkiolako ustez). DBLOren 3 i) artikuluko definizioan dago jasota datuak lagatzea zer den: *“interesduna ez den beste pertsona bati datuak erakustea”.*

DBLOren arabera, datuak lagatzeko arau orokorra adostasuna da. Zehatzago esateko, DBLOren 11. artikulua honakoa dio adostasunari buruz: *“Tratamenduaren objektu diren izaera pertsonaleko datuak hirugarren bati komunika dakizkioke soil-soilik datu-*



lagatzailearen eta datu-hartzailearen eginkizun legitimoekin zuzeneko lotura duten xedeak betetzeko; interesdunak aurretiaz horren inguruko adostasuna eman beharko du". Baina, adostasuna ez da beharrezkoa legez ezarritako zenbait kasutan, adibidez, lege batek ematen badu datuak lagatzeko baimena.

Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 64. artikulua aurreikusita du konpainia hornitzaileek eta entitate kudeatzaileek derrigor eman beharko dizkietela eskumena duten administrazioei etxebizitzaren erabilera desegokia frogatzeko datuak, baldintza hauek betez:

"64. artikulua. – Etxebizitzaren erabilera desegokia frogatzeko baliabideak.

*1.- Etxebizitza edo bizitoki baten erabilera desegokia frogatzeko, **eskumena duten administrazioek**, lege honekin bat etorriz, zuzenbidean onartzen diren bidez gain, honako hauek eskatu eta kontuan hartu ahal izango dituzte:*

a) Biztanleen erroldaren eta beste erregistro publiko batzuen datuak.

*b) Uraren, gasaren eta elektrizitatearen **ohiz kanpoko kontsumoak, ohikoak baino handiagoak edo txikiagoak.***

*2.- Artikulu honen 1. paragrafoan adierazitako **zerbitzuen konpainia hornitzaileek eta entitate kudeatzaileek derrigor eman beharko dituzte etxebizitzaren erabilera desegokia frogatzeko eskatzen zaizkien datuak**, betiere datuen babesari buruzko araudia erabat errespetatuz. Datuak lortzeko orduan eta beste edozein erregistro publikotatik lortutako informazioa tratatzeko orduan ere araudi hori bera bete beharko da.*

3.- Lehenengo paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, ohiko kontsumoak baino txikiagoak daudela joko da baldin eta justifikatzen ez bada pertsona bati bizitegi-erabilerarako dagokion gutxieneko ur-, gas- eta elektrizitate-kontsumoa. Eta ohiko kontsumoak baino handiagoak daudela joko da baldin eta etxebizitza edo bizitoki batean gaintitu egiten bada lege honetan eta lege hau garatzeko araudian etxebizitza gainokupatuari buruz xedatutakoaren arabera haietan gehienez ere bizi daitekeen jende-kopuruari dagokion gehieneko kontsumoa.

Artikulu hau aplikatu ahal izateko, erregelamendu bidez zehaztuko da zer jotzen den, pertsona batentzat, bizitegi-erabilerarako ur-, gas- eta elektrizitate-kontsumoaren gutxieneko eta gehieneko mugatzat. Erregelamendu hori egiten ez den bitartean, gutxieneko kontsumotzat joko da Estatistikako Institutu Nazionalaren azken argitalpenaren arabera pertsona bakoitzari batez beste dagokion ur-, elektrizitate- eta gas-kontsumoaren herena, eta gehieneko kontsumotzat joko da Estatistikako Institutu Nazionalaren azken argitalpen horren arabera pertsona bakoitzari batez beste dagokion kontsumoa halako hiru".

3/2015 Legeak jasotako erabilera desegokia frogatzeko baliabideen (uraren ohiz kanpoko kontsumoa adibidez) helburua da egiaztatzea ea etxebizitzak modu desegokian ari diren erabiltzen; eta horrek esan nahi du administrazio eskumendunek baliabideak erabiltzeko lege gaikuntza dutela, baina helburu horretarako bakarrik.

Beraz, 3/2015 Legearen 64. artikulua lege gaikuntza ematen du datu horiek lagatzeko eskumena duten administrazioei, etxebizitzaren erabilera desegokia frogatzeko.

Hala eta guztiz ere, kontua hartzen bada Konstituzio Auzitegiak eten egin dituela 3/2015 Legearen 64. artikulua eta beste batzuk, gobernuko jarduneko presidentek sustatutako konstituziokontrakotasun errekurtsio baten ondorioz, esan behar dugu



etenda segitzen duten bitartean edo artikulu horien konstituziokontrakotasuna ebatzi bitartean ez dagoela halako datuak lagatzea gaitzen duen legerik, ukituen adostasunik ez badago.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko apirilaren 22a